

AURREKONTUA GAUZATZEKO UDAL-ARAUA

2026ko Aurrekontua

KONTZEPTUA ETA JUSTIFIKAZIOA

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 6.3.c artikulua dioenez: "Aurrekontu orokorrean 1. eta 2. Idatz-zatietan aipatutako agiriak ez ezik ondorengo hauek ere egon behar dira: (...) c) **Aurrekontuak Gauzatze Araua**: bertan, besteak beste, nahitaez agertu behar dira bermeak emateko eta zorpetzeko gehieneko mugak, erakunde bakoitzari aplikatuko zaizkionak".

9. Artikulua: "Toki erakundeen aurrekontu orokorretan Aurrekontuak gauzatze Araua egon behar da; bertan aurrekontu arloko xedapen orokorrak erakundearen antolaketara eta inguruabarretara **moldatu** behar dira eta kudeaketa zuzenerako behar diren moldaketak ere egingo dira. Gastuak hobeto egiteko eta baliabideak hobeto biltzeko egokietsi eta komeniesten diren ohartarazpenak ezarriko dira. Ekonomia administrazioari buruzko legeria ezin alda daiteke, ez eta aurrekonturako aurreikusitakoa ez beste prozedura eta formalitate bereziak behar dituzten administrazio manuak ezarri ere".

I.TITULUA. ARAU OROKORRAK ETA KREDITU-ALDAKETAK

I. KAPITULUA: ARAU OROKORRAK

1. artikulua. Aldi baterako eremua.

Aurrekontuaren onespén, kudeaketa eta likidazioa, Exekuziorako Udal Arau honek xedatzen duenari lotuko zaio, Arau honek Aurrekontuaren indarraldi bera izango duelarik. Aipatutako Aurrekontua luzatu beharko balira, Udal Arauek, era berean, indarrean jarraituko dute luzapen-aldian.

2. artikulua. Funtzio eremua.

Araua indarrekoa da Oiartzungo Udalaren aurrekontuak exekutatzekoan.

3. artikulua. Aurrekontu kredituak.

Gastuen Egoeran zehazturiko zenbatekoak mugarri dira aurrekontuaren indarraldiarekiko eta lotesleak aurrekontu egiturekiko zein honako Arau honek xedatzen dituen lotura juridikoen mailekiko. Kredituak aurrekontura biltzeak ez du inongo eskubiderik sortzen.

Oro har, urtarilaren 1etik abenduaren 31ra arte baimenduriko gastuetatik eratorritako obligazioak beregana daitezke soilik, legeek onartutako salbuespenekin.

4. artikulua. Aurrekontu Orokorrari buruzkoa.

1. Aurrekontu Orokorrak, gehienez ere onar daitezkeen obligazioen eta likidatzea aurreikusten diren eskubideen adierazpen zifratu eta sistematikoa biltzen du.
2. Aurrekontu Orokorrak ez du hasierako defizitik azaltzen eta ohiko eragiketak, gutxienez, izaera bereko gastuak eta zorpetzearen amortizazio-gastuak gehitzearen emaitzaren berdinak dira.
3. Ekitaldi ekonomikoa hastean dagokion Aurrekontua onetsita ez badago, amaitutako ekitaldiko abenduaren 31ko behin betiko kredituak automatikoki luzatutzat hartuko dira beste tramiterik gabe, hurrengo ekitaldian eraentzeko, Aurrekontu berria onetsiko duen erabakia hartu arte. Ez dira inolaz ere luzagarriak izango aurreko ekitaldian bukatu beharreko kredituak edo ekitaldi horretan bakarrik jasoko diren ukitutako sarrera edo sarrera espezifikoekin edo kredituekin finantzaturikoak.
4. Luzatu gabeko sarrerengatik, karga finantzario gehiagoko sarrerengatik, luzatzen den ekitaldirako baimendurikoaren berdina den behin-behineko portzentajea berdin eta gehienekoz gehitutako pertsonalari egin beharreko ordainketengatik, konpromisoazko kredituak barne, nahiz beren izaera ekonomikoagatik zuzkiduren gehikuntza bat eskatzen duten beste mota bateko gastuengatik, luzatutako aurrekontuan egin beharreko doikuntzak Korporazioko Presidenteak egingo ditu, betiere kontu ikuskatzailetzaren txostena jaso ondoren eta finantzaketa nahikoa baldin badago.
6. Aurrekontu orokorrek baimendutako kredituetakoren bat barne hartzen ez badute edo kopuru txikiagoagatik barne hartzen badute, ukituriko programa funtzionalaren kargura kitatuko da dagokion zenbatekoa, eta hori ezinezkoa bada, Osoko Bilkurak erabakiko du dagokion doikuntza egiteko era.

Aurrekontu orokorra osatzen duten aurrekontuak honakoak dira:

- a) Udalaren Aurrekontua. Gastuak eta diru-sarrerak: **22.831.411,04 €.**
- b) Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoa. Gastu eta diru-sarrerak: **1.032.702,28 €.**
- c) Udalbiltza Partzuergoa. Gastu eta diru-sarrerak: **849.790,50 €.**

Horrela, aurrekontu bateratua, gastuak eta diru-sarrerak: **23.790.631,02 €.**

5. artikulua. Aurrekontu egitura

Aurrekontu Nagusiaren Egitura bat dator Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Udal Entitateen Aurrekontu Erregelamenduan jasotakoarekin.

1. Gastuen Egoeran jasotako kredituak honako irizpide hauek erabilita sailkatu dira:
 - a) Organikoa. Hiru arlo nagusitan zatitzen da: Antolaketa, Lurraldea eta Herritarrak.
 - b) Programakoa. Udalak gauzatu beharreko programa eta egituren arabera.
 - c) Ekonomikoa. Gastuaren ezaugarrien arabera.

Aurrekontu partidak —sailkapen organikoa, programakoa eta ekonomikoaren bilgunea den aldetik— unitate bat osatzen du eta horretan egingo da kredituen, horien aldaketen eta gastuak egiteko eragiketen erregistro kontablea.

2. Sarrera Aurreikuspenak ere irizpide berak erabilia sailkatu dira: Organikoa ekonomikoa eta programakoa.

6. artikulua. Lotespen juridikoak.

1- Aurrekontu-kredituek, izaera adierazgarria dutelarik eta gastuen egoera-orrian hauek azaltzen duten desagregazio maila kontuan izan gabe, izaera mugatzailea eta loteslea izango dute hurrengo puntuan ezartzen den lotespen juridiko mailaren arabera.

2.- Ondorengo ataletan zehazten diren gastu-kredituen lotespen juridikoaren mailak ezartzen dira. Geroko atal batean zehaztutako lotespenak lehentasuna izango du aurreko ataletan zehaztutakoen gainetik.

Honela gelditzen dira lotura juridikoen mailak:

- | | |
|-------------------------|--|
| - 011 programa | Partida guztiak lotuak |
| - I eta VI Kapituluak: | Kapitulua sailkapen ekonomiko mailan. |
| - II Kapituluak | Sekzioaren 1. hizkia sailkapen organikoan eta kapitulu ekonomikoan |
| - IV eta VII Kapituluak | Sekzioa sailkapen organikoan eta kapitulu ekonomikoan. |
| - VIII Kapituluak | Aurrekontuko partidaren arabera. |

Salbuespenak:

- IV Kapituluak Oarsoaldeari bideratu beharreko partida guztiak lotuak egongo dira beraien artean.

3.- Lotura juridiko bera duten partiden artean beste azalpen bateko gastu bat egin nahi izanez gero, partida berria sortuko da eta kreditua beharko balitz ondorengo kreditu aldaketan egoera formalizatuko da.

7. artikulua. Lotespen juridikoaren ondorioak.

Gastuaren kontrol kontu-hartzailea, lotespen mailak definitutako mugarekiko burutuko da. Sarreraren kontabilitatea eta kontrola azpi-kontzeptu mailan burutuko da.

II. KAPITULUA: KREDITU-ALDAKUNTZAK

8. artikulua.- Kreditu-aldaketei buruzkoa

1.- Lotura juridikoa gaingiditzen duen gastua egin nahi izanez gero, kreditua aldatzeko espedientea izapidetu beharko da, kapitulu honetan xedaturikoak estu-estu beteta.

2.- Edozein kreditu aldatu ahal izateko, zergatik aldatu nahi den arrazoitu beharko da, baita azaldu ere aldaketa horrek nolako eragina izango duen aurrekontua gauzatzekoan xedaturiko helburuak lortzeari begira.

3.- Kreditua aldatzeko espediente guztien gainean eman beharko du iritzia Udal Kontu-hartzailetzak, eta hurrenkeran zenbakitu beharko ditu.

4.- Ez da kreditu aldaketatzat joko, baina bai kontularitza doitzetatzat, Lotura Juridikozko Poltsa batean aurrekontu sail bat sortzea, beti ere zenbatekoa aldatzen ez bada eta gastu eginari buruz argibide gehiago eskaintzen badu.

9. artikulua.- Kreditu-transferentziak

1.- Gastuen aurrekontuaren aldaketa bat gertatzen denean, eta aldaketa horrek, aurrekontuko kopurua aldatu gabe, kreditu baten guztizko edo zatizko zenbatekoa lekuz aldatzen duenean, lotura juridikoko hainbat mailari dagozkien kontu-sailen artean, edota kreditu orokorretik eginiko transferentzien bitartez, kreditua transferitzeko espediente bat onetsiko da.

Kredituen transferentziek aurrekontuko sail berriak sortzea inplikatu ahalko dute.

2.- Programa funtzional baten barruan egindako transferentzia guztiak, inbertsio errealetarako aurreikusitako kontsignazioak gutxitzen dituztenak ezezik, Korporazioko Presidentearen eskumenekoak izango dira.

Eginkizun egitarau ezberdin batzuen arteko transferentziak erakundeko buruak onetsiko ditu, beti ere jatorrizko eta helburuko egitarauetako aldaketen diferentzia metatuak aurreikusitako hasierako esleipenen % 25 gainditzen ez duenean eta ondasun-inbertsioetarako esleipenak gutxitzen dituztenean izan ezik.

Gainerakoetan, erabakia Udal Korporazioaren Osoko Bilkurak hartuko du.

3. Kreditu zabalgarrien zuzkidura gehitzeko kreditu globaletik egindako transferentziak, Udal Arau honetako 15. artikuluan xedatutakoaren arabera arautuko dira.

4.- Kreditu-transferentziak ondorengo mugei lotuta egongo dira:

- a) Kreditu-transferentziek ez dute transferentzia erregimenaren edo kreditu gehigarrien arabera erantsitako ordainketa kredituak gutxituko, ez eta udal arau honen 33.4. artikuluan xedatutakoaren arabera dagozkien konpromiso kreditua gehituta ikusi dutenak ere.
- b) Kreditu-transferentziek ez dute bestelako transferentzien ondorioz gutxitu diren kredituen gehikuntzarik ez ezarriko.
- c) Ezin dituzte zabalgarritzat hartzen diren kredituak gutxitu, kalifikazio hori galduz, beraz, eta geroago ezingo dira gehitu.

5.- Ondorengo kreditu-transferentziak, ez dira aurreko atalean aurreikusitako mugei lotuta egongo:

- a) Pertsonal-gastuen lehen kapituluko kreditu desberdinei dagozkienak.

- b) Gastuen kontabilitate-egozketa egoki bat lortzeko beharrezkoak diren egokitzapen teknikoen ondorio direnak.
- c) Korporazioaren Osoko Bilkurak onetsitako berrantolaketa administratiboen ondoriozko transferentziak direnak.

6.- Transferentziek konpromiso-kredituei dagozkien ordainketa-kredituak gutxitzen dituztenean, kontratuen zenbatekoa gehitzeko baimena eman ahal izango da, arau honetako 33.4. artikuluan aurreikusita, gutxitutako zenbatekoa kenduz.

Hala ere, aurreko atalak aipatu dituen transferentziak ordainketa-kredituaren zuzkidurako zenbateko osoari badagozkio, konpromiso-kreditua, ordainketa-kreditua beraren zatia dela, baliorik gabe geldituko da berez.

7.- Konpromiso-kredituei dagozkien ordainketa kredituen zuzkidura handitzen duten transferentziek honako ondore hauetako bat sortuko dute:

- a) Konpromiso-kreditua transferitutako zenbatekoan gutxitu.
- b) Konpromiso-kredituaren zenbatekoak aurreko kopuruari eutsi.

Aurreko a) kasuan, arau honetako 33.4 artikuluan aurreikusitako gehikuntzarako baimena eman ahal izango da, konpromiso-kredituaren zuzkidura berriaren gainean aplikatuta, b) kasuan, eta jasotako gehikuntza manu horrek aipatutako baimenaren mugak zehazteko konputatuko da.

10. artikulua.- Kreditu-gaikuntza.

1.- Ekitaldian lortutako sarrerak, Udal Entitatearen Administrazioaren Aurrekontuetako sarreren egoeretan aurreikusi ez zirenek, edota aurreikusitako zenbatekoa baino handiagoa dutenek, ondorengo eragiketetatik eratorriak, aurrekontu kredituak sortu ahal izango dituzte dagokien Gastuen Egoeran:

- a) Pertsona fisiko edo juridikoen ekarpenak edo ekarpenak egiteko konpromiso tinkoa, udalarekin batera beren izaeragatik hurrenez hurrenezko xede edo helburuetan bilduriko gastuak finantzatzera zuzenduak. Beharrezkoa izango da sarrera egina izatea edo, halakorik ezean, espedientean ekarpena emateko erabaki formala agertzea.
- b) Ondare-ondasunen besterenganaketa, eskubidearen aintzatespenari ekitea beharrezkoa izango delarik.
- c) Prezio publikoak likidatu direnean, aurreikusi diren sarrerak baino kopuru handiago batez.
Kasu honetan, kredituak sortzearen arabera beren kreditua igo deneko partidetan aplikatutako gastuen erabilgarritasuna, eskubideen bilketa efektiboaren baldintzapean geratuko da.
- d) Maileguen itzulketa, hala badagokio.
- e) Beste erakunde publiko batzuen aurrekontu orokorren kargura jaso edo pertsona edo erakunde pribatuak ematen dituzten beste ekarpen batzuk.
- f) Ohiko aurrekontuaren bidegabeko ordainketen itzulera; ondoren, haien kobrantzak kreditua birjarri ahal izango du dagokion kopuruan.

2.- Udalaren aldeko ekarpen bat egiteko konpromiso tinkoa ezagutzen denean, edota 1. puntuan deskribatutako sarreren bat Aurrekontuan aurreikusitakoa baino kopuru handiago

batez biltzen denean, gastuen egoera-orriko hurrenez hurreneko partidetan eskuragarriak diren kredituak sarrera sortzen duten jardueren garapenean beharrezkoa izango den gastu gehikuntza finantzatzeko nahikoak ote diren ebaluatuko da.

Aipatutako kreditu-bolumena nahikoa izanez gero, ez da bidezkoa izango kreditu-sorkuntzari buruzko espedientearen tramitatzea.

3.- Pertsona natural edo juridikoen ekarpen edo konpromisoetan oinarritzen diren sarrerek (a atala) edo beste entitate batzuen aurrekontu orokorretatik edo pertsona nahiz entitate pribatuetatik datozenak (e atala) hitzartutako gastu edo proiektu jakin batzuk burutu eta finantzatzeko aplikatu beharko dira.

Ondarezko ondasunen salmentatik (b apartatua) eta maileguen itzulketa edo amortizazio aurreratutik (d apartatua) datozen sarrerek, kasu orotan, kapital eragiketak (inbertsioak) finantzatzeko erabili beharko dira.

4.- Gaikuntzak Korporazioko lehendakariak baimenduko ditu lortutako diru-sarrerek izaera finalista dutenean; eta udalbatzarrak gainontzeko kasuetan.

5.- Krediturik gaitu ahal izango da partida zabalgarrietan eta kreditu globalean, likidatutako tributu sarrera berri edota handiagoez baliatuz.

11. artikulua.- Kreditu-gerakinen txertaketa

1.- Urtarrilean zehar, eta aurreko ekitaldiari dagokionez, kontu-hartzaileak ondorengo hauek barne hartuko dituen egoera-orria landuko du:

- a) Baimendutako transferentzia jasan duten kredituak eta emandako kreditu gehigarriak, bi kasuetan eragiketa ekitaldiaren azken hiruhilekoan egin bada.
- b) Erabilitako gastuei dagozkien kredituak, hauentzat justifikaturiko arrazoiengatik obligaziorik hartu ezin izan bada.
- c) Gaitutako kredituak eta ukitutako sarrerei loturiko bestelako kredituak.
- d) Kapital-eragiketengatiko kredituak.

2.- Kreditu gerakinak txertatu ahal izateko, horretarako nahikoa finantza baliabideak egon beharko dira.

3.- Oro har, Aurrekontuaren likidazioa gerakinen txertaketaren aurretik emango da. Dena den, ondorengo kasuetan aipatutako aldaketa Aurrekontuaren likidazioaren aurretik onets daiteke:

- a) Ukituriko sarrera zehatzen bidez finantzaturiko kreditu gastuak direnean.
- b) Aurreko ekitaldian esleitutako kontratuei edota premiazko gastuei dagokienean, aurretik Kontuhartzaileak txertaketak defizita sortuko ez duela dioen txostena luzatuko duelarik.

4.- Txertatzen diren kredituak txertaketa gertatzen den ekitaldi berean gauzatu beharko dira, hots, ekitaldi horretan bertan iritsi beharko da obligazioa onartzeko fasera. Halaber, debekatu egiten dute elkarren segidako txertaketak egitea, salbu eta sarrera finalistekin finantzatzen diren kapital-eragiketen kasuan.

5.- Korporazioko Presidenteari dagokio gerakinen txertaketaren onespena.

12. artikulua.- Deuseztapenagatiko bajak

1.- Alkateak kreditu baten saldoa zerbitzuari kalterik eragin gabe murriztu edo baliogabe daitekeela baderitzo, deuseztapenagatiko baja-espedientea irekitzea agindu ahal izango du.

2.- Onespena Korporazioko Udalbatzarrari dagokio.

13. artikulua.- Kreditu Gehigarriak

1.- Ekitaldian hurrengo urtera arte atzeratu ezin den gastu bat burutu behar bada eta honentzako krediturik ez badago, edota egonez gero ez dago nahiko krediturik eta zabalgarrria ez bada eta aurretik erregulaturiko aldakuntzen erregimenaren indarrez betetzea ezinezkoa suertatzen bada, aurrekontuaren aldakuntza kreditu gehigarri baten bitartez onetsi ahal izango da.

2.- Kreditu gehigarriari buruzko espedientea, Kontu-hartzaitzak txostena eman ondoren, izapidetuko da, gutxienez, honako agiri hauek eduki behar dituelarik:

- a) Gastua beharrezkoa edo presazkoa delako frogatuta, Udalburuak emana.
- b) Proposatutako gastua finantzatu behar duen baliabidearen eta behar bezala xehekatutako aurrekontu partida gehitu gaiaren zehaztapena.

3.- Kreditu gehigarriak puntu honetan zerrendatzen diren baliabide bat edo zenbaiten bitartez finantzatzeko dira:

- a) Diruzaintzako Gerakin likidoaren bitartez.
- b) Aurrekontuaren kontzepturen batean aurreikusi ez ziren likidatutako sarreren edo aurreikusitakoak baino handiagoen bitartez.
- c) Konpromisorik gabeko aurrekontuaren bestelako partiden kreditu-deuseztapenak edo bajen bitartez, euren zuzkidurak zerbitzuari kalterik eragin gabe murriztu edo baliogabe daitezkeela irizten bada.
- d) Salbuespen gisa, espresuki beharrezkoak eta presazkoak deklaraturiko operazio arrunten ziozko gastu berriak edo handiagoak finantzatzeko erabil daitezkeen baliabidetzat erabaki ahalko dira kredituko operazioetatik datozenak, betiere honako baldintza hauek batera betetzen badituzte:
 - 1.- Urteko zenbateko osoa ezin da izan erakundearen aurrekontuko eragiketa arrunten ziozko baliabideen %5 baino gehiago.
 - 2.- Erakundearen finantza zama osoa, proiektupeko eragiketetatik datorrena barne, ez da baliabide horien %25 baino handiagoa izango.
 - 3.- Eragiketak hitzartu dituen udala eraberritu baino lehen kitatu behar dira. Erabazpen horrek, Erregimen Lokaleko Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/85 Legeko 47.3. artikuluan ezarritako quoruma beharko du.

14. artikulua.- Kreditu Gehigarrien espedienteen tramitazioa

1.- Udal-batzarrak onetsiko du espedientea, eta jendaurreko informazio, erreklamazio eta behin-betiko argitarapen tramiteak beharrezkoak dira.

2.- Alkatetzaren berehalako jarduketa errekeritzen duten hondamen publikoko kasuetan edota antzeko aparteko izaera duten balizkoetan, Alkatetzak interes orokorra zainduz, aipatutako egoerei aurre egiteko beharrezko kreditu gehigarriak onartu ahal izango ditu, Osoko Bilkurari hartutako premiazko jarduketan berri emanaz.

Alkatea izango da kreditu gehigarriak onartzeko eskumena duen organoa, baldin kreditu horien urteko zenbateko metatua aurrekontuko hasierako kredituen %5 baino gutxiago bada.

15. artikulua.- Kreditu zabalgarrien espedientea

1.- Zabalgarri kalifikazioa jasoko dute, printzipioz izaera mugatzailea izanik ondorengoen arabera kopuruz gehi daitezkeen ordainketa-kredituak:

- a) Honi buruz indarrean dauden xedapenei jarraiki zuzenean dagokion kredituari edo kredituei lotutako sarreraren bilketa efektiboa.
- b) Definitutako kreditu globalaren xedapenak.

2.- Zabalketa erabakia Korporazioko Presidenteak hartuko du, kasu guztietan.

3.- Aurrekontuan barne hartutako ondorengo kredituak, zabalgarritzat hartuko dira:

- a) I Kapituluko gastuak Arau honetako 28. Artikuluan ezarritako mugapenez.
- b) Interesak, zenbateko nagusiaren amortizazioa eta zorpetze gastuak ordaintzeko erabilitako kredituak.
- c) Berariazko dirulaguntzak espresuki jasotzearen ondoriozkoak.
- d) Udaleko zerga, tasa eta kontribuzioen administrazio eta kobrantzak eska ditzakeen agiri eta baliabide guztiak ordaintzera destinatutakoak.
- e) Berandutze-interesak eta finantza-kontuen ondorio diren gastuak ordaintzera zuzendutakoak.

4.- Kreditu zabalgarriak aurreikusitako kreditu-gehigarrien erregimenaren bidez hedatuko dira eta onespina Korporazioko Presidenteari dagokio.

Gastuen aurrekontuko ondorengo partidak zabalgarriak izango dira, kreditu bakoitzarentzat izendatutako finantzaketaren arabera:

KREDITU ZABALKORRAK			FINANTZAKETA	
PARTIDA	IZENA	HAS.ZENB.	PARTIDA	IZENA
1 0111.833.931.00.01	Pertsonalari aurrerakinak	1,00 €.-	2 0111.833.931.00.01	Pertson. Aurre. Bueltatzea
1 0221.420.170.00.01	Ekarp.diput.: %20 hobek. K	30.000,00 €.-	2 0221.551.170.00.01	Nekazaritza eta basoko probetx

II.TITULUA. GASTUEI BURUZKOA

I. KAPITULUA: ARAU OROKORRAK

16. artikulua. Aurrekontu-urtekoa.

1.- Gastuen egoera-orriko kredituen kargura ekitaldian burututako gastuen ondoriozko obligazioak baino ezin izango dira hartu.

2.- Salbuespen gisa, ondorengo obligazioak onartuak izateko unean indarrean dagoen aurrekontuaren kredituei aplikatuko zaizkie:

- a) Pertsonalari zuzendutako atzerapenak likidatzearen ondoriozkoak, hauek onestea Alkateari dagokiolarik.
- b) Aurreko ekitaldietan behar bezala hartutako gastu konpromisoen ondoriozkoak, kasu honetan obligazioak onartzea 22. artikuluan aurreikusi bezala gauzatuko delarik.
- c) Aurretik onetsi gabeko gastu bat burutzearen ondorioz aurreko ekitaldietatik datozenak, hauek onestea Osoko Bilkurari dagokiolarik.

17. artikulua. Kreditu globala edo orokorra.

Aurrekontuko Gastuen Egoeraren barruan ordainketa kreditu global bat barne hartu ahal izango da beste ordainketa kreditu batzuen zuzkiduretako nahikotasunei edo zuzkidurarik ez duten premia berriei aurre egiteko, bai eta Arau honetan xedatutakoaren arabera zabalgarritzat kalifikatutako kredituak finantzatzeko ere. Honela eratutako kreditu globalaren zuzkidurak ez du Aurrekontuko ordainketa kredituen guztizko zenbatekoaren %5a gaindituko, kreditu globalaren beraren zuzkidura ere guztizko horren barne egonik. Hurrengo ekitaldiko aurrekontua hasten denerako indarrean ez badago, ahalmen hau luzatutzat joko da berez.

Kreditu globala honako prozedura honi loturik geratzen da:

- a) Ezingo da gasturik baimendu zuzenean aipatutako kreditu globalaren aurka.
- b) Kreditu globala ezin da inolaz ere gehitu, gero udalbatzak baimendu eta aldaketa onetsi ezean, beti ere hasierako ordainketa-kredituen %5(e)ko muga errespetatzen dela.
- c) Arau honen 9. artikuluko xedapenak ez zaizkie kreditu globaletik burututako transferentziei aplikatzekoak izango.
- d) Kreditu globalaren erabilerak Korporazioaren Presidenteak baimendu beharko ditu.
- e) Kreditu hauek automatikoki luzatutzat joko dira baldin eta datorren urtaldiko aurrekontuak ez badira indarrean sartzen urtaldia hastean.

18. artikulua. Kreditu ez-erabilgarriak.

1.- Kredituen ez-erabilgarritasuna aitortzea, bai eta erabilgarri birjartzea Osoko Bilkurari dagokio.

2.- Ez-erabilgarri aitortutako saldoaren kargura ezin izango dira gastu-baimenak, ez eta transferentziak erabaki eta bere zenbatekoa ezin izango da hurrengo ekitaldiko aurrekontuan barne hartu.

II. KAPITULUA: AURREKONTU-KUDEAKETA

19. artikulua. Kreditu-atxikipena "RC".

1.- Kreditu-atxikipena egintza honen bidez egiten da, aurrekontu-partida bati dagokionez, gastu bat baimentzeko edo zenbateko jakin bateko kreditu-transferentzia bat baimentzeko

behar besteko saldoa dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria, eta zenbateko bereko erreserba egiten da gastu edo transferentzia horretarako.

2.- Alkateak, kredituak atxikitzeko agindua emango du edo gastuari eustea bermatzeko beste neurri prebentibo batzuk aginduko ditu, betiere aurrekontua gauzatzeak halakorik aholkatzen badu.

Adierazitako kredituak askatzeko, haiek atxikitzeko aurreikusitako izapide berak egin beharko dira.

20. artikulua. Gastuaren kudeaketaren faseak.

Udalaren gastuen aurrekontuaren kudeaketa ondorengo faseetan burutuko da:

- a) Gastu-baimena (A).
- b) Gastu-erabilera (D).
- c) Obligazio onartuak (O).
- d) Ordainketa-agindua (P).
- e) Ordainketa (R).

21. artikulua. Gastu-baimena (A). eta Gastu-erabilera (D).

1.- Baimena ematea zenbateko zehatz edo gutxi gora beherako batez gastu bat burutzea erabakitzen duen egintza da, aurrekontu-kreditu baten osotasuna edo zati bat horretarako gordez.

2.- Erabilera aldez aurretik baimena jaso duten eta zenbateko eta baldintza guztiz finkatuta duten gastuak burutzea erabakitzen duen egintza da.

22. artikulua. Obligazio onartua (O).

1.- Obligazioa onartzea entitateari eska dakiokkeen kreditu bat badela aitortzen duen egintza da, kreditu hau baimendutako eta konpromisopeko gastu baten ondoriozkoa delarik, erabileraren xede den prestazioa edota eragin horretarako erabakitako edo ezarritako baldintzak bete direla behar bezala egiaztatzeagatik.

2.- Alkateak obligazioak onartzearen eskuduntza du, beti ere legalki hartutako gastu-konpromisoen ondoriozkoak badira.

3.- Obligazioen onarpena aurreko ekitaldietan burutzeko baimenik ez zuen gastu bat burutzearen ondoriozkoa bada, euren onespena Osoko Bilkurari dagokio.

4.- Kontratistek luzatutako fakturak Kontu-hartzailletza erregistroan aurkeztuko dira, bertan gutxienez ondorengo datuak adierazi beharko direlarik:

- Udalaren identifikazio argia (izena, IFK).
- Kontratistaren identifikazioa.
- Faktura zenbakia.
- Fakturaren data
- Hornikuntzaren edo zerbitzuaren gutxieneko deskripzioa.
- Gastu-espedientearen zenbakia, esleipenaren unean adierazitakoa.

5.- Faktura guztiak Kontu-hartzailetzan jaso eta erregistratuko dira.

6.- Fakturan adostasuna eskatuko da, eta jasotzean organo eskudunen onespenera luza daitezkeen faktura guztien zerrenda burutuko da.

7.- Fakturak Kontu-hartzailetzak landutako zerrendan jasoko diren diligentzia eta sinaduraren bitartez baimenduko dira.

8.- Fakturen ordainketa ezingo da helbideratu, salbu eta gaur egun aukera hori lehendik baldin badaukate. Faktura helbideratuak zuzenean tramitatu eta onetsiko dira, eta berekiko adostasuna ordaindu ondoren egingo da.

Jasotzen direnetik hasi eta hilabeteko epean teknikari edo zinegotzi eskudunak ez badie espresuki adostasuna eman, hark adostasuna eman diela ulertuko da.

23. artikulua. Obligazioaren onarpenerako aski diren agiriak.

1.- I Kapituluaren gastuetan, erregela hauek hartuko dira kontuan:

- a) Nominak alkate dekretuz onartuko dira.
- b) Gizarte Segurantzaren kuotak dagozkien likidazioen bitartez frogatzen dira.

2.- II. Kapituluko gastuetan, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan, Gastuen Egoera-orriaren izaera orokorrean, faktura edo ordainagiria aurkeztu beharko da.

3.- Udalak ordaindu beharreko transferentziak, arruntak edo kapitalarenak izanik ere, erabakiaren agiria erantsiko da.

4.- Ordainketaren transferentzia baldintzaturik badago, "O" agiria tramitzeko finkatutako baldintzak bete beharko dira.

5.- Inbertsio-gastuetan kontratistak faktura aurkeztu beharko du, batzuetan obra ziurtagiria bati lotuta egongo dira eta hauek ere bidali beharko ditu eta teknikariak ontzat emango ditu.

6.- Akzioen eskuraketak ordaintzeko Korporazioaren erabakiak beharko dira.

7.- Pertsonalari zuzendutako mailegu emakidak direnean, Giza Baliabideetako Arduradunaren txosten batez, interesatuaren eskaera eta pertsonalak emakida indarrean dagoen arautegiari lotzen zaion proposamena luzatuko dira. Alkate dekretuz onartuko dira.

24. artikulua. Ordainketaren agindua (P).

1.- Ordainketa agintzea onartutako eta likidatutako obligazio batean oinarriturik, ordainketa agintzen duenak dagokion agiria "P" luzatuz dagokion ordainketa agindua luzatzen duen egintza da.

2.- Alkateak ordainketa-aginduen eskuduntza du, dena den, indarrean dagoen arautegiari jarraiki delega dezake.

3.- Ordainketa-aginduak, orokorrean, Kontu-hartzailetzak landutako ordainketa-aginduen zerrendetan oinarriturik burutuko da. Ordainketaren izaerak edo premiak hala eskatzen badu, ordainketa indibidualki burutu ahal izango da.

4.- Ordainketa (R). Diruzaintzatik fondoen irteera material edo birtuala ematen duen egintza da, zorraren kitapena gauzatuz. Aipatutako ordainketak, oro har, hilabete bakoitzeko 10ean eta 25ean batera burutuko dira, Alkatetzak aparteko arrazoiak direla medio, beste egun bat xedatzen duenean izan ezik.

5.- Faktura oro Udal Kontu-hartzailetzaren bulegoetan faktura erregistratu den egunetik hasita 40 egunetako epean ordainduko da.

Hala ere, Kontu-hartzailetzak ordainketa zerrendak pertsonal gastuek bai eta aurreko ekitaldietan hartutako obligazioek duten beharrezko lehentasunari jarraiki burutuko ditu.

III. KAPITULUA: PROZEDURA ADMINISTRATIBOA

25. artikulua. Baimena - Erabilera (A)-(D).

- 1.- Lehiaketa edo enkante bidez kontratazio espediente baten xede izango diren gastuak direnean, espedientearen hasieran "B" agiria tramitatuko da, honen zenbatekoa Zerbitzu Teknikoak landutako proiektu edo aurrekontuaren kostuaren adinakoa izango delarik.
- 2.- Adjudikazioduna eta zenbateko zehatza ezagututakoan "E" agiria tramitatuko da.
- 3.- Hurrenez hurren, eta obra, zerbitzua edo hornidura burutzen den neurrian, dagozkien "O" agiriak tramitatuko dira.
- 4.- Talde honetan ondoren zerrendatzen direnak sartzen dira:
 - Inbertsio edo mantenuko obrak burutzea.
 - Ibilgetua eskuratzea.
 - Bestelakoak, euren izaerak baimen ematea eta erabilera egintzen arteko bereizketa eskatzen dutenak.

26. artikulua. Baimena eta Erabilera (AD).

- 1.- Korporazioak legez hartutako konpromisoei erantzuten dieten gastuek, "BE" agiriaren tramitazioa sortaraziko dute ekitaldiari egotz dakioken gastuaren zenbatekoaz.
 - 2.- Ondoren xehekatutakoak dira talde honetakoak:
 - Konpromiso-gastuak, konpromisopean hartutako urtekoaren zenbatekoaz.
 - Errentamenduak.
 - Segidako traktuko kontratuak (garbiketa, zabor bilketa, eta abar).
 - Itundutako maileguen amortizazio kuotak eta interesak.
 - Eskuraketak edo zuzeneko kontratazioaren xede diren zerbitzuak.
- "O" agiriak, kontratatutako obra burutu, zerbitzua egin edo ondasuna eskuratutakoan tramitatuko dira, eta horretarako aski izango da fakturak aurkeztu edo banku kontuan zordunketa egitea.

27. artikulua. Baimena, Erabilera eta Obligazioa (ADO).

- 1.- Ondasun jakin batzuen eskuraketek eta kontratazio prozesurik behar ez duten beste gastu batzuek, zeinetan obligazioaren galdagarritasuna berehalakoa izan baitaiteke, "ADO" agiriaren tramitazioa sortaraziko dute.
- 2.- Ondokoak dira talde honetakoak:
 - Material txikien eskuraketa (100,00 € + BEZ artekoak)
 - Dietak.
 - Lokomozio gastuak.
 - Berandutza-interesak.
 - Bestelako finantza-gastuak.

Kontsumo efektiboek dagozkien ordainagiriak aurkezterakoan, "ADO" agiria tramitatuko da.

Gastuen baimenean eta erabileran eskumen arau hauek beteko dira:

- a) Udalbatzarraren eskumena izango da aurrekontuaren ohiko baliabideen %10-etik gorako gastuen baimena eta erabilera, nahiz konpromisuzko kredituek finantzatzen dituztenena izan, eta 100.000,01 €-tatik gorakoak diru-laguntza eta ekarpenetan.
- b) Gobernu Batzordearen eskumena izango da aurrekontuaren %5-etik aurrekontuaren %10 arteko gastuen baimena eta erabilera eta 50.000,01 €-tatik 100.000,00 €-tarainoko diru-laguntza eta ekarpenetan.
- c) Lehendakariaren eskumena izango da aurrekontuaren ohiko baliabideen %5a arteko gastuen baimena eta erabilera eta 50.000,00 €-tarainoko diru-laguntza eta ekarpenetan

Gastuen baimenerako espedienteari alorreko ordezkariak proposatu ondoren hasiko da, gastuaren beharra zuritzeko berak egiten duen memoriarekin batera, hain zuzen. Kontu-hartzaileak espedienteari buruzko aurre-fiskalizazio txostena idatzi beharko du, 39/1988 Legeak 194tik 204ra artikuluetan jasotakoaren arabera, exekuzio arau honen 13. atalean adierazten mugekin.

28. artikulua. Pertsonal-kredituak.

- 1.- Aurrekontu honen 1 eranskinean betetzen diren plazek osatzen dute, funtzionario-taldeetan edo lan kategorietan sailkatutako, Oiartzungo Udaleko langile zerrenda.
- 2.- Ekitaldian, langile zerrenda aldatzeko espedienteak onartuko badira, beharrezkoa izango da horietatik datorren gastu gehikuntza konpentsatuta geratzea beste plaza edo lanpostu batzuei dagozkien kredituak murriztuz.
- 3.- I Kapituluako gastuei dagokienez, honako erregela hauek betetzen dira:
 - a) Hileko nominak Alkatearen dekretuz onartuko dira eta "ADOP" eta "ADOP/" agiriak tramitatuko dira.
 - b) Funtzionarioen izendapenak edo pertsonal laboralaren kontratazioak egin ahal izango dira.
 - c) Aldi baterako lan-kontratuko erregimeneko pertsonala kontratatu ahal izango da.
 - b) eta c) kasuetan kontratazio hauen beharra duten sailek eskaera egin eta Giza Baliabideetako Arduradunak kontratatzekeo premiari buruzko txostena erantsi beharko du.

Kontu-hartzaileak behar adinako aurrekontu kreditua izateari buruzko txostena egin beharko du, honako kasu hauetan:

- 1.- Enplegua sustatzeko lankidetzak-hitzarmenak, beste erakunde batzuekin, hala nola Lanbiderekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, izenpetutakoak.
- 2.- Langile zerrendako langileek egin ezin dituzten lanak edo ezusteko lanak eta iraunkorrak ez direnak egitea. Udal aurrekontua onartu ondoren, alkateak kontratazioak formalizatu ahal izango ditu, kontratatu beharreko pertsonak hautatzeko legez derrigorrezkoak diren izapideak bete ondoren, eta beste erakundeak hitzarmenetan parte hartzeko edo laguntza ekonomikoak eskuratzeko deialdia abian jarri duela egiaztatzen denean. Beharrezkoa izanez gero, kontratazioa haren ebazpenari itxaron gabe formalizatzearen kalterik gabe, Alkatetzak dagokion aurrekontu-aldaketaren izapideak hasi eta sustatu beharko ditu.

2. kasutan, behar-beharrezkoa izango da dagokion gastuari aurre egiteko berariaz ezarritako aurrekontu-kreditua izatea. Partida hori automatikoki luzatuko litzateke, baldin eta hurrengo ekitaldiko aurrekontuak hura hastean indarrean jarriko ez balira.

d) Ahalmena ematen zaio Alkatetzari, halaber, aldi baterako langileen kontratazioak berehala egin ditzan, hutsik dauden lanpostuak betetzeko eta gaixotasunek, lizentziek/baimenek edo sindikatuetakoa liberazioek eragindako egoeretan ordezkapenak egiteko.

e) Gizarte Segurantzaren kuotei dagokienez, "ADOP" agiria tramitatuko da.

4.- Udalbatzako kide liberatuen urteko ordainsarien zenbatekoak aldatuko dira udaleko enplegatuentzat onetsiko den ehuneko global berean.

5.- Udaleko pertsonalak eta Korporazio kideek trebakuntza ikastaroetan parte hartzeko baimena idatziz eskatuko dute, horretarako landutako espedientea erabiliz.

6.- Hautetsiek eta udal langileek, udal barrutitik kanpora egiten dituzten joan-etorriengatik, honako kalteordainen eskubidea izango dute:

a) Joan-etorriak gastuak:

- Joan-etorriak: 0,29 euro kilometroko, gehi bidesariak, gehi aparkalekuaren gastuak, beti ere gastua ordainagiritik zuritu eta gero.

- Bestelakoetan: egindako gastuaren zenbatekoa, ordainagiritik zuritu eta gero.

b) Otordu eta ostatu gastuak:

- Egindako gastuaren zenbatekoa, ordainagiritik zuritu eta gero.

29. artikulua. Udalkideen esleipenak.

Erabateko edo zatikako dedikaziorik ez duten hautetsiek, parte hartuko duten ohiko edo ez ohiko udalbatzarra bakoitzeko 420,00 €, Informazio Batzorde edo Koordinazio Batzorde bakoitzeko 105,00 € jasoko dute, dieta gisa. Hileko jaso dezaketen gehieneko zenbatekoa 420,00 € izango da.

30. artikulua. Ekarpen eta dirulaguntzen tramitazioa

1.- Diru-laguntza edo laguntzat hartuko da funts publikoen edozein doako erabilera, Oiartzungo Udalak pertsona edo erakunde publiko zein pribatuen alde emana, erabilera publikoko edo gizarte intereseko jardueraren bat sustatzera edo helburu publikoren baten lorpena bultzatzera zuzendua.

2.- Diru-laguntza mota hauek bereizten dira:

a) Zuzeneko diru-laguntza izendunak. Onuradunak zehaztuta eta esplizituki identifikatuta dituzten diru-laguntzak dira.

Mota honetako diru-laguntzek "AD" agiriaren tramitazioa sorraraziko dute ekitaldiaren hasieran. Beste administrazio batzuei nahitaez egin beharreko ekarpenen kasuan, zenbatekoa ekitaldiaren hasieran ezaguna bada, "AD" agiria tramitatuko da.

b) Aldez aurreko deialdirik gabeko zuzeneko dirulaguntzak edo izengabeak: kasu zehatzetarako ematen dira, deialdi publikoa egitea eragozten duten interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak edo behar bezala justifikatutako bestelakoak egiaztatzen direnean.

Atal honetan sartuko dira, halaber, bekak, sariak eta sektore-mailako xedapenean arautze propioa duten laguntzak edo diru-laguntzak.

c) Norgehiagoka-erregimeneko diru-laguntzak (NEDL): Horrelakoetan, hainbat eskabide egon daitezke elkarren lehian, eta diru-laguntza emateak berekin dakar

eskabide horiek prozedura bakarrean elkarrekin alderatzea, arau erregulatzailean edo deialdian xedaturiko irizpideen arabera, horren bitartez dirulaguntza zeini eman ebazteko eta, kasua hala bada, zenbatekoa zehazteko.

Diru-laguntza hauek "A" agiria sorraraziko dute deialdia abian jartzean eta "D" esleitzen diren unean bertan.

3.- Edozein eratako diru-laguntza emateko, beharrezkoa izango da memoria bat osatzea, ondoko hauek jasoko dituen:

- * Funtsen erabilera.
- * Ordainketa egin ahal izateko nahitaez bete beharreko baldintzak.
- * Kasua hala bada, jasotako zenbatekoak itzultzea dakarten kausak.

4.- Diru-laguntza pagatzeko agindua jaulki ahal izateko, ezinbestekoa da Organo Kudeatzaileak egiaztatzea bete direla diru-laguntza emateko erabakian eskatutako baldintzak. Baldin eta baldintza horiek, duten berezko izaeragatik, funtsak eskuratu eta gerora bete behar badira, Organo Kudeatzaileak ezarri beharko du baldintza horiek, betiere zer denbora-bitartetan bete behar diren.

5.- Oro har, obligazioa "O" dokumentuaren bidez aitortuko da, betiere ordainketa baldintzatua ez badago.

Beste gainontzean, tramitazioa ez da abiatuko harik eta baldintza betetzen ez den arte.

6.- Jasotako fondoan aplikazioa frogatzeko honako alderdiok hartuko dira kontuan:

- a) Dirulaguntzaren helburua obra edo instalazioren baten burutzapena denean, Udal Zerbitzuetako teknikari batek egiaztatu du burutu dela bertara joanda edo dagokion obra ziurtagiriak baieztatuta.
- b) Dirulaguntzaren helburua material suntsigarria eskuratzea, zerbitzua edo antzekoren bat denean, egindako ordainketaren jatorrizko egiaztagiria aurkeztu beharko dira.

7.- Edozein dirulaguntzaren eman ahal izateko hartzaileak ezin izango du Udalaren, Ogasunaren edo Gizarte Segurantzaren zordun izan.

Behin onuraduna izendatu ondoren zorduna balitz, udalak konpentsatzeko erabakia hartu ahal izango du.

31. artikulua. Talde Politikoentzako diru-laguntzak.

Udal-taldeei beren udal-jardueraren ondoriozko funtzionamendurako gastuak asetzeko zuzendutako 150,00 €/hileko ekarpen ekonomikoa finkatzen da,

32. artikulua. Inbertsio-gastuak.

Espedientean honako agiri hauek txertatu beharko dira kasu orotan:

- a) Proiektua, planoak eta memoria.
- b) Kostu osoa bilduko duen aurrekontua. Urbanizazio obrarik exekutatu behar izanez gero, hauen kostua aztertuko da.
- c) Baldintzen Pleguak, kontratu motaren arabera behar izanez gero.
- d) Etorkizuneko ekitaldietako funtzionamendu eta artapen gastuen zenbatekoa.
- e) Aurrekontu-aplikazioari buruzko proposamena.

- f) Jarduketak etorkizuneko ekitaldietarako inbertsio konpromisorik baldin badakar, Kontuhartzailetzak aldeko txostena eman beharko du hurrengo artikulua ezartzen duena betetzeari buruz.

33. artikulua. Konpromiso kredituak.

1.- Konpromiso kredituen orria ekitaldian zehar konprometitu ahal diren urte anitzeko gastu guztiek osatzen dute eta hura onesten denean beraiek bideratzeko baimena egongo da, ezarritako baldintzetan.

Etorkizuneko ekitaldi bakoitzerako indarreko konpromiso kredituen zenbateko metatua ezin da izan erakundearen likidatutako azken ekitaldiko eragiketa arrunten ziozko baliabideen %25 baino gehiago.

Konpromiso kredituak bestek finantzatzen baditu, finantzaketaren zenbatekoa ez da konputatuko gastu gisa aurreko paragrafoan aipatutako mugen ondoreetarako.

2.- Konpromiso kredituen orriaren barruan, ez dira sartuko pertsonalari, finantza-zamei eta zorpetzetik sortzen diren amortizazioei dagozkien gastuak, ondasun higiezin errentamenduari dagozkion konpromisoak, iraunkorrak direnak eta segidako traktukoak.

3.- Aurrekontuek ezin dute konpromiso krediturik bildu, baldin eta beraien gauzatzea ekitaldian bertan hasten ez bada; hori dela eta, ordainketa kreditu egokiak izan behar dituzte.

4.- Barne hartutako konpromiso kredituak geroztiko adjudikazioari loturiko eragiketei eta, beraz, aurrez zehaztasunez finkatu ezineko kopurukoak badira, hurrenez hurrenko kontratuak hasiera batean aurreikusi eta/edo onetsitako kopuruaren gaineko %20ko gehikuntzarekin eta jatorriz aurreikusitakoa urtebetez gaindi dezan denboraldirako formalizatzeko baimena ematen zaio Alkateari.

Ondorio horietarako, eta gehikuntza zenbateko bereko beste konpromiso kreditu batzuen gutxipen korrelatiboaren aurka burutzen ez bada bederen, aldeztu aurretik udalaren finantza-baliabideak konpromiso kredituen zenbateko berriari aurre egiteko behar adinakoak ote diren eta arestian ezarritako gehieneko muga errespetatzen ote den aztertu beharko da.

5.- Ondasun higiezin edo ekipoen errentamendu kontratuen kasuan, bai eta hornidura, asistentzia tekniko, zerbitzuak eta mantentze obren exekuzioaren kasuan ere, Kontuhartzailetzak txostena eman beharko du etorkizuneko ekitaldietako estaldura zenbatespenari buruz.

IV. KAPITULUA: FROGATU BEHARREKO ORDAINKETAK ETA KUTXA FINKOKO AUERRERAKINAK

34. artikulua. Frogatu beharreko ordainketak.

1.- Kutxa finkoko aurrerakinen kargura ordaindu ezin diren eta burutu aurretik euren egiaztagiririk edukitzeko aukerarik ez duten premiazko eskuraketa edo zerbitzuen kasuan soilik luzatutako dira frogatu beharreko ordainketa-aginduak. Halaber, egokierako arrazoiengatik edo behar bezala egiaztatutako beste arrazoi batzuegatik, beharrezkotzat

jotzen denean kredituak arintze aldera. Ordainketa agindu hauek dagozkien aurrekontu kredituei aplikatuko zaizkie.

2.- Gehienez, justifikatu beharreko 800,00 euroko kopuruak entregatu ahalko zaizkie Korporazioko kargudun hautapenezkoei eta Saitetako Tekniko Arduradunei. Frogatu beharreko ordainketak ordainduko dira diruzaintzaren kontutik.

Edozein kasutan ere, Alkatetzako ebazpenaren bidez, zenbateko handiagoko funts-zuzkidurak egin ahalko dira eta/edo Entitateko gainerako pertsonalaren aldekoak eta/edo proposatzen diren habilitatu haiena.

3.- Hiru hilabeteko epean eta, kasu orotan, ekitaldia itxi baino lehen, hartzaileek ordainketaren frogagiriak Kontu-hartzailetzaren eskura jarri beharko dituzte, erabili gabeko kopuruak itzuliz.

4.- Funtsak zer xederekin eman ziren, hartarako bakarrik balia daitezke, eta egindako gastuaren jatorrizko agiriekin justifikatu behar dira. Halaber, Bigarren Xedapen Gehigarrian ezarritako baldintzak bete beharko dituzte, eta kontu ikuskatzailetzak emandako aginduei egokituiko zaizkie. Kontuan izango da, betiere, pertsonala funts horien kargura kontratatzeke debekua, bai halaber atxikipen tributarioak atenditzea, kontratazio administratiboa eta subentzioen abonamendua.

5.- Ezin izango zaie ezein kasutan "frogatu beharreko" ordainketa-agindu berririk luzatu, aurrekontu kontzeptu berberengatik, oraindik beren eskueran frogatu gabeko fondoak dituzten hartzaileei.

6.- Hartzailea izango da fondoak zaintzearen erantzule.

35. artikulua. Kutxa Finkoko Aurrerakinak.

1.- Berehala ordainduko den eta kopuru txikiko funtzionamendu gastuetarako, hala nola dietak, lokomozio gastuak, kostu gutxiko elikagai eta edariak, komunikazioak eta antzeko ezaugarriak dituzten gastuak, justifikatu beharreko gastuak kutxa finkoaren aurrerakin gisa eman daitezke.

Oro har, kutxa finkoaren aurrerakintzat joko dira presazko aldizkako beharretarako egiten diren diru hornidurak, gerokoan ekitaldiko aurrekontuan jasotzekoak direnez gero, eta baita errepikakorrek direnak.

Horrelakoak baimentzeko organo eskuduna izango da gastua baimentzeko organo eskudun bera. Kutxa finkoaren aurrerakinak ordainduko dira diruzaintzaren kontutik.

2.- Kutxa finkoko aurrerakinak honako xedeetarako eman ahal izango dira soil-soilik, eta ondorengo mugen barne:

XEDEA	ARDURADUNA	MUGA
Bulegoko material inbentariaezina, dietak eta joan-etorrien gastuak, mantenimendua eta artapena Beste hainbat gastu txiki	Udaltzaingoa	400,00 €.

Larrialdiko diru-laguntza eta ordainketak	Gizarte Zerbitzuak	5.000,00 €
---	-----------------------	------------

3.- Diruzaintzako premiek fondoak birjartzea aholkatzen duten heinean, gaituek kontuak emango dituzte Diruzaintzaren aurrean.

4.- Ezin izango zaie ezein kasutan ordainketa agindu berririk luzatu kutxa finkoko aurrerakin gisa, oraindik beren eskuera frogatu gabeko fondoak dituzten hartzaileei.

5.- Aurreko puntuan aurreikusitakoaren kalterik gabe, eta hiruhileko natural bakoitzaren amaiera datarekiko, gaituek egindako erabileren eta fondoaren egoeraren berri emango diote Diruzainari, eta beti ere abenduaren 15a baino lehen.

6.- Kontabilizazioari dagokionez, honako erregela hauek beteko dira:

- Fondo hornidura ez da aurrekontu-kontabilitatean aplikatuko, aurrekontuz kanpoko eragiketatzat hartzen da.
- 3. puntuan aipatutako kontuak onetsirik, fondoak birjartzeko ordainketa aginduak luzatuko dira, frogatutako kopuruak dagozkien aurrekontu kontzeptuei aplikatuz.
- Ordainketa agindu hauek luzatzerakoan ez dira egindako kreditu-atxikipenak erabiliko, kreditu erabilgarria agortu ez bada edo, ekitaldia aurreratuta egoteagatik edo beste arrazoi batzuegatik, fondoaren birjarpena bidezkoa ez bada behintzat; kasu honetan, frogatutako ordainketak hurrenez hurreneko partidei aplikatuko zaizkie, kreditu atxikipenen kargura.

V. KAPITULUA: OBLIGAZIOAK IRAUNGITZEA

36. artikulua. Obligazioak iraungitzea.

1.- Udalak halako onuradun jakin baten alde onartutako obligazioak ordaindu beharra 4 urteren ondoren iraungitzen da.

2.- Interbentzioak, obligazioak iraungi ahala, iraungitzeko proposamena aurkeztuko du, espedientean horren gaineko egiaztagiria jasota. Alkateak onartu beharko ditu obligazio iraungiak.

III.TITULUA. SARREREI BURUZKOA

I. KAPITULUA: SARRERAREN EXEKUZIOA

37. artikulua. Sarreraren exekuzioa.

1.- Aurrekontu-ekitaldiari bertan onartutako eskubideak egotziko zaizkio, beraien jatorrizko denboraldia edozein izanik ere.

2.- Sarreraren Aurrekontuaren kudeaketa honako fase hauetan burutuko da:

- Sarreraren onarpena (R).
- Sarreraren kobrantza (I).

Gastuei ukitutako sarreraren kasuan sarrera konpromiso finkoaren fasea ere burutu ahal izango da. Sarrera konpromiso finkoa zera da: edozein Entitate edo pertsona publiko edo pribatu gastu jakin bat era garbian edo baldintzapean guztiz edo partzialki finantzatzeko, Udalarekin akordio edo hitzarmen batera iristean burutzen den egintza da, era honetan Udalak hartutako obligazioak betetzen direnean eska dezakeen kobraketa eskubide bat eragiten delarik.

38. artikulua. Eskubide-onarpena (R).

1.- Udalaren aldeko likidazio bat izan dela jakin bezain laster eskubide onarpena egingo da; likidazio horrek Korporazioan bertan, beste Administrazio batean edo partikularretan izan dezake jatorria; hurrengo puntuetako erregelak beteko dira.

2.- Aurretiazko izendapeneko likidazioetan, zuzeneko sarrerakoetan, eskubide onarpena —430 kontua likidazioak onetsitakoan kontabilizatuko da.

3.- Aurretiazko izendapeneko likidazioetan, ordainagiri bidezko sarrerakoetan, eskubidearen onarpena errolda onetsi ondoren kontabilizatuko da.

4.- Auto-likidazioetan eta aurretiazko izendapenik gabeko sarreretan, aurkeztu eta beren zenbatekoa sartutakoan.

5.- Beste Entitate batetik beharkizun jakin batzuk betetzearen baldintzapean jaso beharreko dirulaguntza edo transferentzien kasuan, haren konpromisoa erabaki formala hartzen deneko unean bertan jasoko da, "Itundutako konpromisoak" kontura kargatuz eta "Konpromisopeko sarrerak" kontuan abonatuz. Dirulaguntza galdagarria izan dadin ezarritako baldintzak betetzerakoan, eskubidea onartu egingo da.

6.- Estatuko tributuetako eta Udal Finantzaketarako Foru Planeko partaidetzari dagokionez, ekitaldiaren hasieran itundutako konpromiso gisa kontabilizatuko da kontzeptu honengatik sarreren aurreikuspena. Hiru hilean behin, fondoak jasotzerakoan, ematearen onarpen eta kobrantza kontabilizatuko dira.

7.- Itundutako maileguetan, hauei buruzko Osoko Bilkuraren erabakia hartutakoan kontabilizatuko da konpromisoa. Segidako erabilerak burutzen diren neurrian, eskubide onarpena eta dagozkien kopuruen kobrantza kontabilizatuko dira.

8.- Interesetan eta bestelako errentetan, eskubide onarpena sortzapenaren unean sortaraziko da.

39. artikulua. Aldizka kobratzeko tributuen eta prezio publikoak

1.- Errenta eta Ordainarazpenetarako Zerbitzuak aldizka kobratzeko tributuen erroldak landuko ditu, xede horretarako kudeaketa zerbitzuek haiek uki ditzaketen gorabehera ezagunak jakinaraziko dituztelarik.

2.- Ordenantzen onarpenarekin batera kobratzeko tributuen egutegi fiskala onetsi eta argitaratuko da.

Era berean, aldizkako izaerako prezio publikoak borondatezko bidean ordaintzeko aldia ere argitaratuko da.

40. artikulua. Zuzeneko diru-sarreren likidazioak.

Kontu-hartzaileak bidezko gertatzen diren neurriak hartuko ditu likidazio tributarioen burutzapen puntuala ziurtatzen eta bilketa-funtzioaren emaitzarik onena lortzen saiatzeko.

41. artikulua. Kobrantzen kontabilizazioa (I).

- 1.- Bilketatik datozen sarrerak, beren aurrekontu aplikazioa ezagutzen ez den bitartean, aplikatu gabeko Sarrera gisa kontabilizatuko dira. Horren kaltetan izan gabe, fondoak kutxa bakarrean barneratuta egongo dira.
- 2.- Korporazioak jaso behar dituen sarreren gainontzekoari dagokionez, sarrera-agindu bitartez formalizatuko dira, bidezko gertatzen den aurrekontu kontzeptuari aplikatua eta Kontuhartzaitzak fondoak sartu direla jakiten duen unean luzatua.

II. KAPITULUA: DIRUZAINNTZA

42. artikulua. Diruzaintza.

- 1.- Udalaren eta zuzeneko kudeaketako bere organoen finantza-baliabide guztiek, aurrekontu eragiketengatik nahiz aurrekontuz kanpokoengatik, osatzen dute Udal Diruzaintza.
- 2.- Udal Diruzaintza kutxa bakarreko printzipioaren bidez eraenduko da.
- 3.- Bilketaren zuzendaritza Diruzainari dagokio, bilketaren alorrean indarrean dagoen araudiaren aplikazioa eta baloreen kontaketa egiaztatzeko prozedura finkatu beharko duelarik.
- 4.- Diruzaintzaren erabilgarritasunak eta beraien aldaketak barne kontrolari eta Kontabilitate Publikoaren erregimenari loturik geratzen dira.

43. artikulua. Fondoaren egoera.

- 1.- Udalak ondorengo kontu mota hauek eduki ahal izano ditu:
 - a) Sarreren eta gastuen operazio-kontuak.
 - b) Ordainketa-kontu murriztuak.
 - c) Gordailuketa eta fidantza-kontuak.
 - d) Diruzaintzako gerakinen kokapenerako finantza-kontuak.
- 2.- Kontu-irekiera eta itxieraren xedapena, beraien mugimendua eta beren funtzionaltasunaren finkapena, Alkatearen edota horretarako bere ordezkari izendatzen duenaren eskumena izango da, berak ezartzen dituen baldintzetan.
- 3.- Fondoak erabili ahal izateko, entitateko presidentearen eta Udaleko Diruzain eta Kontuhartzailearen sinadura mankomunatua eduki beharko da soilik, edota horien hurrenez hurrenko ordezkariak.

44. artikulua. Diru-sarrerak egiteko eta ordaintzeko bideak.

- 1.- Udal Entitateen baliabideen bilketaren ekoizkina lehentasunez ondorengo kreditu-entitate laguntzaileen bitartez sartuko da:

- * Kutxabank
- * Euskadiko kutxa

- * Nafarroako Rural Kutxa
- * Banco Sabadell Guipuzcoano
- * La Caixa

Diruzaintzaren proposamenez, Alkateak aipatutakoez bestelako edozein finantza entitate izendatzeko ahalmena izango du, bidezkotzat jotzen duenean.

2.- Udalak bere obligazioak banku-transferentzien bidez ordainduko ditu, horretarako ezarrita dauden ordainketa bideen gainontzekoa erabiliko delarik definituta dagoen transferentzia sistema erabiltzea ezinezkoa denean.

45. artikulua. Diruzaintzaren Erregistroa.

Diruzaintzaren erregistro bat prestatuko da, bertan, Udal Entitatean dauden kontu eta kutxa guztiei dagokienez, ondorengo atalak jaso beharko direlarik:

- Kontu edo Kutxa mota.
- Izena.
- Titulartasuna.
- Kokalekua eta identifikazioa. Kontuak baldin badira, beren zenbakia, Banku, Finantza edo Kreditu Entitatea eta, hala dagokionean, sukurtsala konstarazi beharko dira.
- Bere zaintzaren pertsona erantzuleak.
- Bere mugimenduaz arduratzen diren pertsonak.
- Organo eskumendunak ezartzen duen beste edozein.

46. artikulua. Diruzaintza-Plana.

1.- Diruzainari egokituko zaio Diruzaintzaren Hiruhileko Plana lantzea, Alkatetzak onetsi beharko duelarik.

2.- Baliabide likidoen kudeaketa errentagarritasun gorena lortzeko irizpidearekin burutuko da, kasu orotan berehalako likidezia ziurtatuz obligazioak beren denbora-mugaegunetan bete ahal izateko.

IV.TITULUA. FINANTZA-ERAGIKETEI BURUZKOA

47. artikulua. Epe ertain eta luzerako eragiketak.

Ekitaldi honetan ez da aurreikusten inolako eragiketarik.

Hala ere, Alkateak ahalmena du finantza erakundeetan kredituak gestionatzeko, aurrekontuko inbertsio programak finantzatzeko beharrezkoa izanez gero, honako baldintza hauek kontuan izanik:

Gehienezko interes tipoa: EURIBOR gehi diferentziala
Gehienezko amortizazio aldia: 10 urte eta 2 urteko gabezia
Bermeak: Indarreko legeak emandakoak

Kreditu eragiketak Administrazio Publikoen kontratuen Legeari arautzen ez direnez gero, prestatze eta esleitze aldiek honako izapideak bete beharko dituzte:

- Eskaintzak eskatuko zaizkie gutxienez 5 kreditu erakundeei.
- Kontu-hartzailea aurretik txostena emanda, Antolaketa Batzordeko Arduradunak proposamena bidaliko dio eskudun udal organoari.

48. artikulua. Epe laburrerako eragiketak.

1.- Alkateak, Antolaketa Batzordearen proposamenez, Diruzaintzaren unean-uneko zailtasunei aurre egin ahal izateko beharrezkoak gertatzen diren finantza-eragiketen formalizazioa onetsi ahal izango du, hauek dokumentatzeko modua edozein izanik ere, hamabi hilabeteko edo gutxiagoko itzulketa-epearekin. Adierazitako eragiketen saldo biziak ezin izango du inolako kasutan Aurrekontuaren %10 gainditu.

2.- Alkateari dagokio epe laburrerako zorpetze-eragiketen interes-tasa, baldintzak, salbuespenak eta gainontzeko ezaugarriak ezartzea, eta Alkateari aipatutako eragiketak, dagokionean, udalerraren izenean formalizatzea.

49. artikulua. Kreditu-eragiketen ber-finantzaketa eta ordezkapena.

Alkateari baimena ematen zaio Antolaketa Batzordearen proposamenez aurreko ekitalditan itundutako kreditu-eragiketak ber-finantzatu eta/edo ordezkatzeko, merkatuko baldintzen aldaketaren ondorioz finantza kargan ekonomia lortzea balizko denean, eta era berean, xede berarekin, kreditu-eragiketen itzulketa aurreratuari ekin dakion, beste batzuekin ordezkatu gabe. Kasu hau ematen bada, bidezko diren kredituak gaituko dira dagokion partidetan.

V.TITULUA. OKERREKO SARREREN ITZULKETA ETA ORDAINKETEN ITZULERA

50. artikulua. Sarrerren itzulketa.

1.- Sarrerren itzulketak aribideko ekitaldiari aplikatuko zaizkio, dagokion aurrekontu-kontzeptuaren bilketa gutxituz, itzulketa sortarazten duen sarrera zein aurrekonturi aplikatu zitzaion berdin diolarik.

2.- Subjektu pasiboaren alde ondorioztatzen diren proportziozko kuotei dagozkien itzulketak, ibilgailuaren behin betirako baja gertatzen bada, bai eta trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergaren behin behineko likidazioan abonatutako gehiegizko kopuruak, Alkate dekretuz onartuko dira.

51. artikulua. Ordainketa-itzulera.

Ordainketa-agindu negatibo bat formalizatuko da, orain itzultzen den ordainketa kargatu zeneko aurrekontu-partidari aplikatuz. Itxitako ekitaldietatik datozenak: Zuzeneko sarrerari ekingo zaio dagokion sarrera-aginduaren bitartez, indarrean dagoen egituraren 380 kontzeptuari aplikatuz. Itxitako aurrekontuetako eskubideen itzulketak Udalbatzarraren onarpena beharko dute.

VI.TITULUA. AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

52. artikulua. Aurretiazko eragiketak Gastuen egoera-orrian.

1.- Ekitaldia amaitzen denean, obligazioaren onarpena dakarten udalen erabaki guztiak "O" fasean beren kontabilitate adierazpena jaso dutela egiaztatuko da.

2.- Kudeaketa zerbitzuek kontratistei ekitaldiaren barruan fakturak aurkez ditzaten eskatuko diete. Horren kaltetan izan gabe, ekitaldiari egozgarri zaizkion kontsumo edo zerbitzuengatiko gastu jakin batzuen egoera-orria egiaztatu egingo da, abenduaren 31n fakturarik ez edukitzeagatik beren obligazio-onarpena formalizatua izan ez denean.

Gastu arruntak direnean eta eskuraketa edo zerbitzua gauzatu dela frogatuz kudeaketa-zerbitzuaren txostena dagoenean, jaso gabeko fakturak "O" agiritzat hartuak izango dira.

3.- Ekitaldiaren azken egunean obligazio onartuen betetzeari loturik ez dauden konpromiso-kredituak eta gastuak deuseztatuta geratuko dira, 11. artikulua adierazten duen gerakin-txertaketatik eratorritako salbuespenekin soilik.

53. artikulua. Aurretiazko eragiketak Sarrerren egoera-orrian.

Abenduaren 31ra bitartean egon diren kobrantza guztiak ixten den Aurrekontuan aplikatu behar dira, xede horrekin Biltzaileari bidezko gertatzen diren aginduak emango zaizkiolarik.

54. artikulua. Aurrekontuaren itxiera.

1.- Udalaren Aurrekontuaren itxiera eta likidazioa abenduaren 31n burutuko da.

2.- Likidazioaren egiaztapenak diren egoera-orriak, baita gerakin-txertaketaren proposamena ere, ondorengo ekitaldiaren martxoaren 31 baino lehenago burutu beharko dira.

3.- Udalaren Aurrekontuaren likidazioa Alkateak onetsiko du, Kontu-hartzaileak alde aurretik txosten bat egin ondoren, eta osoko bilkurari jakinaraziko zaio.

55. artikulua. Definizioak.

Bilketa zaila edota ezinezkoa duten eskubideen kopuruaren zehaztapena, saldo kobra-gaitza, hala era indibidualizatuan nola portzentaje orokor baten ezarpenaren bidez burutu ahal izango da.

Kasu orotan, kobra-gaitzat hartuko dira 24 hilabetetik gorako antzinatasuna dutenak, eskubidearen edota zordunaren ezaugarri bereziek bestelako kontsiderazioen bat frogatzen dutenean salbu.

Eskubide batek bilketa zaila edo ezinezkoa duela kontsideratzeak ez dakar sistematikoki bere deuseztapena ez eta kontuetan bere baja ere.

VII.TITULUA. BARNE KONTROLA

56. artikulua. Barne-kontroleko modalitateekiko lotura.

Tokiko autonomiaren printzipioan oinarrituta, eta Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren IV. Tituluan eta Lurralde Historikoko Tokiko Sektore

Publikoko entitateen barne-kontrolaren araubide juridikoa arautzen duen Foru-dekretuan ezarritakoa errespetatuz, Titulu honetako artikuluetan barne-kontrolaren hiru modalitateak arautzen dira: funtzio kontu-hartzailea, finantza-kontrola eta eraginkortasun kontrola.

Barne-kontrolako funtzioak gauzatzeko, horren ardura duen organoak Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne-kontrolaren araubide juridikoa arautzen duen Foru-dekretuko 5. eta 6. artikuluetan jasotako betebeharrak eta ahalmenak izango ditu.

Titulu honetako artikuluetan jasoko ez denerako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa arautzen duen Foru-dekretuan ezarritakoa aplikatuko da.

57. artikulua. Funtzio kontu-hartzailea diru-sarreretan.

Udaleko eskubide eta diru-sarreraren aurretiazko fiskalizazioa egin beharrean, kontabilitatean haren berri hartzeko kontrola eta, hala bategokio, ondorengo finantza-kontrola ezarriko da. Eskubideen onarpen arloko edo baloreen mugimendu arloko eragozpenek ez dute ondorio etengarririk izango.

58. artikulua. Funtzio kontu-hartzailea gastuetan.

Udaleko gastuen aurretiazko fiskalizazioa Titulu honetan ezarritako oinarritzko baldintzetara mugatutako fiskalizazioa eginez egingo da.

Organo kontu-hartzaileak jatorrizko espediente osoa jasoko du, behin frogagiri guztiak bilduta eta nahitaezko txosten guztiak eginda eta organo eskudunak erabakia hartzeko moduan dagoenean. Ondoren, hamar egun balioduneko epea izango du espedientea fiskalizatzeko. Epe hori bost egun baliodunekoa izango da espedientea presazkotzat jo bada.

Gastuaren obligazioak eragin ditzakeen eduki ekonomikoko egintzaren izaeraren arabera, oinarritzko baldintzak Barne Kontrolako Gidaren I. Eranskinean ageri diren txantiloietan aurreikusitakoak izango dira. Txantilo horietan gastuen obligazioak sor ditzaketen egintzen izaera desberdinak bereizten dira, hala nola, kontratazioa, diru-laguntzak, pertsonal-gastuak,....

Obligazioak sor ditzaketen egintzei dagokienez, horien izaera Barne Kontrolako Gidaren I. Eranskinean ageri diren txantiloietan jasotzen ez denetan, fiskalizatuko diren oinarritzko baldintzak honako hauetara mugatuko dira:

- Kreditu egokia eta nahikoa izatea.
- Organoaren eskumena.
- Prozeduran irregulartasun larriak antzemandakoan, irregulartasun horiek gastu-obligazioak eragingo dituen egintzaren erabateko deuseztasunerako bidea eman lezaketenean.

Edozelan ere ez daude aurretiazko fiskalizazioari lotuta:

- Material ez-inbentariagarrian egindako gastuak
- Aldizkako gastuak eta jarraiko traktuko gainerako gastuak, behin fiskalizatuta haiei dagokien egintzaren edo kontratuaren edo haren aldaketen hasierako epeko gastua.

- Kontratu txikiak.

Gastuei aurretiazko fiskalizazio mugatua burutuko da 3.000,00 €-tik behera (zenbateko hori BEZ gabe da) hornidura eta zerbitzu kontratuetan eta 10.000,00 €-tik behera (zenbateko hori BEZ gabe da) obra kontratuetan. Aurretiazko fiskalizazio txostenak A edo AD faseak aztertuko ditu. O fasearen fiskalizazioa kontu-hartzaileak ordainketa agindua sinatzearekin beteko da, modu horretan adieraziko du bere adostasuna.

59. artikulua. Organo kontu-hartzailearen eragozpenak edo ingerak.

Organo kontu-hartzaileak fiskalizatutako gastuen espedienteetan bere adostasuna jasota utzi beharko du. Horretarako eginbide bat sinatuko du, arrazoitu beharrik gabe, eragozpenik ez badago behintzat.

Eragozpenak egonez gero, Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne-kontrolaren araubide juridikoa arautzen duen Foru-dekretuko 12., 14. eta 15. artikuluetan jasotakoaren arabera izapidetuko dira.

Aurreko atalean ezarritakoaren kalterik gabe, eta argitzeko xedearekin, eragozpen desberdinen ondorioa zehazten da jarraian:

- Eragozpen etenarazlea: arau orokorra da gastu- edo ordainketa-obligazioa sortuko duten egintzetarako. Alkateari dagokio hori jasotzea, edo Osoko Bilkurari kreditu nahikoa ez izateagatik edo egokia ez izateagatik bada eragozpena edo Osoko Bilkurari badagokio eragotzitako obligazio edo gastuak onartzeko eskumena.
- Eragozpen ez etenarazlea: desadostasuna eskubideei eta diru-sarrerei buruzkoa denean. Eta obligazioetan edo gastuetan, konpon daitezkeen akats ez funtsezkoak direnean; kasu horretan eragozpenak ez du tramitazioa etengo, baina obligazioa onartzeko fasea istean, obligazio hori eten egingo da konpon daitezkeen akats ez funtsezkoak konpondu ez badira.
- Oharrak: Ez du ondorio etenarazlerik izango eta ez da bidezkoa izango desadostasun-prozedurari ekitea.

60. artikulua. Eginkizun kontu-hartzailea ez betetzea.

Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne-kontrolaren araubide juridikoa arautzen duen Foru dekretuko 28. artikuluan ezarritakoaren arabera izapidetuko da.

Organo eskudunak fiskalizatu ez den eduki ekonomikoaren egintza onartzeko erabakia hartzen badu ere, egon daitezkeen erantzukizunak eskatu ahal izango dira.

61. artikulua. Finantza-kontrola.

Finantza-kontrola Udalaren gaineko kontrol iraunkorraren bidez egingo da, finantza-kontrola gauzatzeko plangintzan eta Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa arautzen duen Foru-dekretuko III. Tituluan jasotakoaren arabera.

62. artikulua. Finantza-kontrolaren plangintza

Urtero, Finantza-kontrolerako Urteko Plana egingo du organo kontu-hartzaileak. Horren berri Osoko Bilkurari emango zaio eta aipatu Foru-dekretuko 31. artikuluan ezarritakoaren arabera izapidetuko da.

63. artikulua. Finantza-kontrolaren emaitzak.

Urtero, barne-kontrolaren gaineko txosten bat bidaliko dio organo kontu-hartzaileak Osoko Bilkurari, Lehendakariaren bidez, aipatu Foru-Dekretuko 37. artikuluan ezarritakoaren arabera. Txosten hori kontrolatutako ekitaldiaren hurrengo urteko lehenengo hiruhilekoan bidaliko da.

64. artikulua. Ekintza plana.

Aurreko artikuluan aurreikusitako barne-kontrolaren gaineko txostena bidali eta gero, tokiko erakundeko Lehendakariak ekintza plan bat prestatuko du gehienez 3 hilabeteko epean. Plan horretan, aurreko artikuluan aipatutako txostenean agerian jarri diren ahuleziak, gabeziak, akatsak eta ez-betetzeak zuzentzeko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira.

VIII.TITULUA. KONTRATAZIOA

65. artikulua. Kontratazioen urteko plana

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak, 28.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, sektore publikoko erakundeek kontratazioaren arloan aurrekontu-ekitaldi batean edo hainbat urtetakoetan garatuko duten jarduera programatuko dute. Beren kontratazio plana aldeztu aurretik ezagutaraziko dute, iragarki informatzaile baten bidez. Iragarki horretan, araubide harmonizatuaren mende egongo diren kontratuen berri emango du.

66. artikulua. Kontratu txikien funtzionamendua

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak, xedatutakoa kontuan hartuta, ondorengo barne-funtzionamendu arauak jartzen dira, kontratu administratibo txikien arloan.

1.- Aplikazio-esparrua:

Hauek izango dira obra, hornidura eta zerbitzuen kontratu txikiak: urtebeteko iraupenetik behera dutenak eta, gainera, lizitazioaren prezioa edo, bestela, gehienezko aurrekontua 40.000 eurotik beherakoa dutenak, obra kontratuen kasuan, edo 15.000 eurotik beherakoa, gainerakoetan.

(Oharra: zenbateko horiek BEZ gabe dira).

2.- Eskaintzen eskaera:

Orokorrean, 3 eskaintza eskatuko dira 3.000 eurotik aurrerako hornidura/zerbitzu kontratu txikietan (BEZ kanpo) eta 10.000,00 eurotik gorako obra kontratu txikietan:

Salbuespenez, enpresa gaitu bakar bati kontsulta egin ahalko zaio, beti ere arrazoia justifikatu ondoren.

3.- Balorazio irizpidea:

Orokorrean, kontratu txikien prozeduretan, prezioa izango da balorazio-irizpide bakarra. Baldin eta pentsatzen bada teknikoki egokia dela prezioa ez beste irizpide batzuk baloratzea, orduan, puntu hori jaso beharko da espedientean.

4.- Kontratu txikien prozedura:

Kontratu txikiak 3 zatitan banatuko dira:

1.- 1.000,00 € azpiko kontratazioak. Sarekoren **"Eskariak"** aplikazioaren bidez gauzatuko dira.

2.- 1.000,00 eta 3.000,00 € arteko hornidura eta zerbitzu kontratazioen kasuan eta obretan 1.000,00 eta 10.000,00 € arteko kasuan, aurreko aplikazioan sartzeaz gain departamentu bakoitzeko arduradun teknikoek edo erosketen arduradunek izapidetuko dituzte kontratuak dagokien kontratu espedientea bideratuz **"Eskua"** aplikazioan ondorengo tramitea ezinbestekoa izango delarik:

a) Aurrekontua

3.-3.000,00 €-tik gorako zerbitzu eta hornidura kontratu txikien kasuan eta 10.000,00 €-tik gorako obren kontratu txikien kasuan, aurreko aplikazioan sartzeaz gain departamentu bakoitzeko arduradun teknikoek edo erosketen arduradunek izapidetuko dituzte kontratuak, dagokien kontratu espedientea bideratuz **"Eskua"** aplikazioan ondorengo tramiteak ezinbestekoak izango delarik:

a) Aurrekontua

b) Justifikazio txostena, kontratazio legearenpean.

Erosketen arduradunen kasuan bigarren oniritzi bat eskatu ahal izango da:

- Brigada, Ur zerbitzuak eta elektrikariengatik egindako erosketen kasuan Zerbitzuetako Zinegotziak oniritzia eman beharko du.

Kontratu sailkapen bakoitzak dagokion prozedura jarraituz eskarien prozeduran ondorengo pausoak emango dira:

1.- Eskarien oniritziarekin dagokion kreditu-atxikipena egingo du aplikazioak (RCT).

2.- Kontu-hartzailtzak Baimen eta Xedatze faseak formalizatuko ditu (A eta D).

3.- Fakturen zerrendaren onespenearekin formalizatuko da obligazioaren aitorpena (O), arduradun teknikoek adostasuna jaso eta Kontu-hartzailtzak fiskalizatu ondoren.

*Gastuaren arduradunek dagozkion fakturak baliozkotzearekin batera emango da oniritzia:

- Salbuespena: Horniduretan eta hainbat zerbitzutan (telefonoa, multifuntzionalak...), arduradunak aztertuko du ea hornitzaileak ondo fakturatu dituen, kontratuaren baldintzak eta prezioak aplikatuz; eta arlo bakoitzeko burua arduratuko da udal ondasun eta zerbitzuen erabilera egoki batean egindako kontsumoez eta gastuez (kopia, dei... kopurua).

67. artikulua. Kontratatzailearen profila eta lizitazio elektronikoaren sistema

Oiartzungo Udalaren lizitazio-deialdi guztiak era zentralizatuan argitaratuko dira, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataformaren bitartez, hain zuzen ere, kontratatzailearen profilean.

Enpresa interesdunek elektronikoki aurkeztu behar dituzte beren eskaintzak, eta lizitazioaren tramitazioa ere bitarteko elektronikoen bidez egingo da, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman dagoen lizitazio-sistema elektronikoaren bitartez.

68. artikulua. Kontratazio mahaia

Legeak bigarren xedapen gehigarrian adierazitakoarekin bat etorritik osatuko da Kontratazio Mahaia.

IX.TITULUA. DIRULAGUNTZAK

69. artikulua. Funtzionamendua

Edozein jarduera antolatzeke Udalak emandako diru-laguntzek bat etorri beharko dute Udal Osoak, Gobernu Batzordeak edo Alkateak, batzorde informatiboen proposamenez, onartutako oinarriekin.

Edozein diru laguntza bideratzeko Oiartzungo Udalaren Diru laguntzen Ordenantza Orokorrean xedatutakoari jarraiki egingo da.

Udalaren aurrekontuaren kargura inolako diru-laguntzarik jasotzen duenak, aldez aurretik, Udalarekin bere zerga betebeharrak eginak dituela egiaztatu beharko du. Horretarako, zerbitzu ekonomikoen buruak ziurtagiri bat sinatu beharko du eta bertan jaso borondatezko epealdia bukatu ondoren zergadunak ez duela inolako zorrik ordaindu gabe.

X.TITULUA. UDAL LANGILEEN ESKAEREN PROZEDURAK

70. artikulua. Ikastaroetan arte-hartzeko prozedurak

Ikastaroetan parte hartzeko honako arauak bete beharko dira:

- a) Baimenaren proposamena alorreko arduradunak sinatuko du, udal entitateko lehendakariaren oniritziarekin, besteak beste honako datuak jasoaz:

- *Ikastarora doanaren datuak, izen-abizenak, lanpostua, e.a.
- *Ikastaroaren gaia, lekua eta iraupena.
- *Ordutegia.

*Matrikularen kuota eta dieten eta joan-etorrien gutxi gorabeherako zenbatekoa.

- b) Udal entitateko lehendakariak ebatziko du baimen proposamenari buruz, aurrez kontu-hartzaileak aurrekontu krediturik badagoenentz eginiko txostena ikusita.
- c) Ebazpena ikusita, diruzainak "zuritu beharreko ordainketen" izaera izango duen diru-hornidura egingo du.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena: Ezdeusak edo hondarrak deklaraturako efektuak zuzenean besterendu ahalko dira, enkantera atera beharrik gabe, baldin eta alkateak horrela erabakitzen bada eta haren zenbateko kalkulatu ez bada 600 eurotik gorakoa.

Bigarrena: Fakturazioko obligazioak erregelatzen dituen 61/2004 DEKRETU FORAL ekainaren 15ekoak ezarritakoaren bertutez, hornitzaileek egiten dituzten operazio bakoitzeko nahitaez jaulki eta entregatu behar dituzten fakturek.

Hirugarrena: Faktura elektronikoei dagokionez:

1.000 euro gehi BEZ-a bitarteko fakturak paperean bidali ahal izango dira. Arau honen salbuespenak ondorengo bi apartatuetan jasota daude.

- Fakturaren bat formatu elektronikoa aurkeztera behartuta egon diren hornitzaileak, aurrerantzean, behartuta egongo dira ondasun entrega eta zerbitzu prestazio guztietan faktura elektronikoa erabiltzera.
- Kontratazio prozeduren esleipendunak behartuta egongo dira faktura elektronikoa egitera eta igortzera, baldin eta esleipen zenbatekoa 1.000 eurotik gorakoa bada, alde batera utzita kasu bakoitzean fakturatzen den zenbatekoa.

Laugarrena: Fakturak edo ordezeko agiriak egiteko epea. Fakturak edo ordezeko agiriak hilabeteko epean egin beharko dira eragiketa egiten den unetik aurrera kontatuta.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehena: Aurrekontuaren egokitzapen teknikoak. Finantza eta Aurrekontuetako zuzendari nagusiari baimena ematen zaio aurrekontuan bidezko egokitzapen teknikoak egiteko, horiek berrantolaketa administratiboen ondorioz beharrezkoak direnean edo haien xedea sarrerak eta gastuak kontabilitatean egoki egoztearen denean. Behar diren aurrekontu partidak sortuko ditu horretarako.

Bigarrena: Saldoak araztea. Antolaketa Arloari dagokio kontuetan sortutako saldoak zuzentzea eta araztea, betiere benetan galdagarri edo gauzagarri diren kreditu edo zorrak kontabilitatean jasota gera daitezen.

AMAIERAKO XEDAPENAK

Lehena: Aurrekontuaren Exekuziorako Udal Arau honetan aurreikusita ez dagoen gainerantzekoan, indarrean dagoen legerian ezarritakoa aplikatuko da.

Bigarrena: Honako Udal Araua interpretatzeko eskumena duen organoa Korporazioko presidentea da, betiere idazkariak edo kontu-hartzaileak aldez aurretik txostena eginda, bakoitzaren eskumenen arabera.

Hirugarrena: Transkribatutako Aurrekontuaren Exekuziorako Udal Araua behin betirakotzat hartuko da eta Korporazioak Osoko Bilkuran onesten baldin badu aplikatu egingo da, eta Aurrekontuaren Indarraldian zehar eraenduko du bakarrik.